

Aretxabaleta,
1994ko otsailak 24

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Euskararen lehentasunak

• Aratusteetako
erretratuak

• Lau
intsumisoren
epaiketa

• Afizioak:
Ainhua Iglesias



Izena: Fco Jabier Manteca
Ofizioa: Zaraia tabernakoa
Afizioa: Futbola eta ehiza
Bizioa: Emakumeak
Misioa: Taberna ordaindu eta larritasune
 tik urten.

• **Lo egiteko ze arropa?**

Pijama.

• **Janari gogokoena?**

Babak; txorizoa, okela...eta guzti horrekin.

• **Kalimotxoala ala ginkasa?**

Ginkasa

• **Ze etxeko lan egiten duzu?**

Ezer ere ez, emazteak egiteko esaten dit, baina amagarrebak ez dit uzten, beraz ez dut ezer egiten.

• **Telebistako saiorik onena?**

Kirol saioak gustetan zaizkit, Kirolez-kirol modukoak.

• **Pertsona batengan zein kualitate baloretan duzu gehien?**

Konfidantza ematea eta gustora egotea berarekin.

• **Zure azken ametsa?**

Loteria tokatu zitzaidan, 150 milioi. Diru horrekin taberna ordaindu nuen, hauxe izan zen azken ametsa.

• **Lurperatu ala erraustu, zer gurago?**

Lurperatu, ohituragatik batez ere.

• **Amestutako lanbidea?**

Nire ilusioa beti taberna izan da, beraz kamareroa izatea betidanik gustatu zait. Orain bai! Nire ametsa maila altuko kamareroa izatea litzateke. Horretaz gain, beste amets bat farmaziautikoa izatea izan da, 4 urte egin nituen plazako farmazian lanean eta beti hori ikasteko gogoia eduki dut.

• **Beldurra zeri?**

Beldurra, beldurra ezerri ere ez, errespetoa gauza askori

• **Zela ikusten duzu tabernak ixteko dagoen ordutegia?**

Orain dagoen ordutegia errespetatuko balitz ondo deritzot.

• **Zure emakume ideala?**

Daukadan emaztea.

• **Atxabaltako alkatea izango bazina, zer aldatu edo egingo zenuke?**

Gauza asko behar bada ez nituzke aldatuko, baina beste modu batera pentsatu bai.

• **Ze iritzi daukazu gaztetxei buruz?**

Atxabaltako gaztetxearen moduan ondo antolatuta badaude ederto ikusten ditut gaztetxeak.

• **Zure birtute bat?**

Sinpatikoa naiz.

• **Akats bat?**

Batzuetan serio samarra naiz

• **Betiko futbol taldea?**

Atletic-a

• **Zela ikusten duzu ertzaintzaren hedaketa Gipuzkoan?**

Oso gogorra. Dena dela, ertzaintzaren despliegeaz geratzen naiz beste guztiak joango balira.

• **200 milioi tokatu ezkerro zer egingo zenuke?**

Negozioaz jarraitu, taberna ordaindu, barriztu behar dena barriztu eta hortik bizi, baina jakina! bizitzeko modua asko aldatuko litzaidake.

Zer botatzen duzu faltan Atxabaltan?



Arantza Galdaera
(Etxekoandrea)

Herri erdian, parke bat. Umeak jolasteko oso gauza gutxi daude, nik parke horretan, gainera kolunpio batzuk ipiniko nituzke, baita banku batzuk ere.



Gorka Gabilondo
(Ikaslea)

Gazteendako lokal bat. Zapatu eta domeketarako ere gazteendako zerbait.



Maite Errasti
(Ikaslea)

Kanpoko piztina bat eta zine handi goa.



Anita Aretxaga
(Etxekoandrea)

Jardinak, erdi aldean berdegune gehiago. Umeek jolasteko ez daukate leku handirik.



Amaia Muguruza
(Langilea)

Jendearendako aktibitate gehiago. Nik uste dut emakume asko da doela, ez dakitenak euren denbora librean zer egin. Nik uste dut urtean zehar, egiten diren ikastaroei jarraipen bat eman beharko litzaikeela.



Tomas Iturricastillo
(Langilea)

Domeka arratsaldeetarako umeendako funtsezkoa da zinea egotea, bestela gazteria tabernetara... joaten da. Zineak urte guztian egon beharko luke.



Eduardo Altube
(Jubilatua)

Lehenengo gauza, Andramaixetatik aparte, etxafleru gehiago botatzen dela Andramaixetan baino. Bestela faltan, parkeak botatzen dituz faltan, umeek jolasteko.



Jacinto Guerrero
(Langabetua)

Umeek jolasteko parke bat.



Kirol-Etxe
inguruko pinudiak
bota zituzten joan
zen astean. Jende
askok pentsatuko du,
poligono berria hasi
behar dela ko dela.
Baina azkenean,
galdetu ondoren,
pinudiaren ugazabak
bota dituela erantzun
digute.

Maitasun gutunak

San Valentin egu-
nean Berrigarak antola-
tutako maitasun gutu-
nen lehiaketako iraba-
zleen izenak eman zi-
tuzten. Denera 69 gu-
tun zeuden. Irabazlea
Ekhiñe Egiguren donos-
tiarra izan zen irabazlea,
Michel izeneko gutuna-
rekin. Bigarrena Jon
Sanchez bergararra,
"Irene Versus Katy"

izenburuko gutunaz iraba-
ziti zuen.

Atxabaltar bat ere
izan genuen irabazle,
Oihana Etxebarria.
Ohiana Etxebarriak, 21
urteko gazteak akzesita
irabazi zuen "England"
izeneko gutunaz.

Berarekin batera ak-
zesita, Roberto Eizagi-
rre eibartarrak ere iraba-
ziti zuen.

Beraz, zorionak par-
te hartzaile guztiei eta
batez ere Oihana Etxe-
barriari.

Manifestazio Nazionala

Elkarrik, Mar-
txoaren 12an manifes-
tazio Nazionala egingo
du Bilbon. Manifesta-
zioa arratsaldeko 5etan
atarako da La Casillatik
eta isilean egingo da.
Lema honako hau izan-
go da: elkarrizketa eta
distentsioa, orain.

Aretxabaletako
Elkarri Tailerrak auto-
busak antolatu ditu Bil-

bora joateko. Herriko
denda eta taberna baz-
tuetan erosi ahal izango
dira autobusez joateko
txartelak.

Bestalde hilaren
12an goizez, Atxabaltan
elkarrizketa eta akordio-
aren aldeko sinadura bi-
lketa erraldoia egingo
dute inguruko tailer guz-
tiek. Hilaren 26an, ba-
rriz, Eskoriatzan.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**



**ANGELINES
Autozerbitzua**
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42



**NOVEDADES
FELI**
MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA

Egonaldiak familia euskaldunetan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" Plangintzan parte hartzeko interesatuta dauden familia euskaldunei

laguntzak emateko modua arautzen duen 1994ko urtarrilaren 12ko agindua plazaratu du.

Beraz, Plangintzan parte hartzeko interesatu-

ta dagoen edozein atxalbatarrek, Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake. Behar diren argibide guztiak bertan eman go zaizkio.



Martxoaren 6an, domekan, Atxabaltan lehenengo aldiz maskarada izango da. Santutxuko Gaztedi Taldeak egingo du ekitaldi hau. Goizean auzo batzuetan barrikada izeneko agerraldia egingo dute eta arratsaldean maskaradaren bigarren saioa egingo da. Eguraldiak laguntzen badu plazan egingo da, bestela Iturrigorri frontoian. Hori denori Loramendi Kultur Elkarteak antolatzen du.

•Karnabal domekan, AEK-k mariskadaren zozketa egin zuen. Mariskada Juan Mari Errasti atxabaltarrari tokatu zitzaion. Zorionak!

• Martxoaren 8a Emakumearen Eguna da. Hori dela eta Loramendi Kultur Elkarteak Tril emakume taldeak, Begoña Muruaga ekarriko du hitzaldi bat eman dezan. Hitzaldia egun berean, arratsaldeko 6,30etan izango da udaletxeko ganbaran.

• Udal Kultura Batzordeak adierazi gura die kultur eta kirol taldeei 1994ko programazioa eta aurrekontua aurkertu ditzaketela.



Lehenengo saria: Traineruak. Saria eta mozorroa euren kuadrilakoa zen Jon Antxiari eskaini zioten.

Aratusteak

Domekan egun polita izan zen Atxabaltan, eguraldi ona eta jende asko kalean.

Eguerdi aldera hasi ziren kuadrila asko kalean zehar euren mozorroak erakusten.

Arratsaldean giro beroak berdin jarraitu zuten. Kanpoko jende asko gerturatu zen. Azkenik, herrian zehar ibilitako mozorro guztiak sariaren zain zeu-

den. 7.30ak aldera Santa Ageda mutilek dantzan bukatu ondoren, mozorroen sari banaketa egin zen. Hamasei urtetik gorakoetan, lehenengo saria traineruak irabazi zuten, bigarrena ardiek eta hirugarrena zirkoak. Hamasei urtetik beherakoetan, lehenengo saria eskimalek irabazi zuten, bigarrena tirolesekin eta hirugarrena exhibizionis-

tek.

Jaiak goizaldera arte iraun zuten. Asteleheneko bixamona pasatuta gero, martizenean ba-

rriro giro polita izan genuen, batez ere umeentzako. Gabean, aratusteei bukaera emateko Txinoa erre zen.




**MATIKUA
TABERNA**

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

**IOSU
URDAITEGIA**

Mitarte, 1



EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak**

Aretxab. Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa.: 79 18 44
Faxa 79 29 41



Umeek ere mozorrotzeko aukera izan zuten.



Aratusteetako neskarik politenak.



Dartañan, bere hiru mosketero barik ere, Atxabaltan izan genuen.



Zapatariek, nahiz eta aratuzteak izan, ez zuten atsedetik izan. Jo ta sua ibili ziren egun guztian, zapat-ak konpontzen, saltzen eta garbitzen. Hori bai ofizio gogorra.



Eskimalak ere bisitari izan genituen. Eta gainera, hamasei urtetik beherakoen artean lehenengo saria atara zuten.

Txin, txin, txin, txin
mahatsa heldu gabe dago
Txin, txin, txin, txin
baina helduko da.
Txiribito eta andrea
joan ziren jatera
Txiribito haserretu
eta bota zuen lapiko



Txino dantza

Aratusteetan Atxalbaltan badugu usadio berezi bat: Txino Dantza. Txino Dantzak urtero eguerdiko ordu batean plazatik urteten du eta kale guztia dantzan zeharkatuta gero plazan bukatzen dute barrero. Dantza horrek herriko

eta inguruko jendearen artean ikusmin handia sortzen du.

Txino Dantza antzinakoa da, zenbait dokumentutan agertzen denez, badirudi hasiera batean mendian ikatza egiten zebiltzanek dantzatzeko zutela. 1934. ur-

tera arte herriko kintoez dantzatu zuten.

Ondoren 31 urteko isilaldia izan zuten, 1976. urtean Loramendi Dantza taldeak berreskuratu zuten arte.

Ohitura hori ez da ezer aldatu, doinu eta jantziak berberak ditu.

Hasieran gaztelarazko letra zuen, baina gaur egun euskaraz kantetan da.

Dantzarien jantziak ez dira oso arruntak; edozein txapel, kamisoi txuria, koloretako galtzerdiak eta zapatila desberdinak.



Herriko lau intsumisoren kontrako epaiketak

Borroka antimilitarista hau orain dela 5 urte hasi zen. Gaur egun Euskal Herrian 4.000 insumiso inguru daude. Aspaldi hasi ziren intsumiso gipuzkoarren aurkako epaiketak. Orduan ez zen ezer gertatu. Orain abenduan 11 epaiketa egin dira eta jende hori gartzelan dago orain.

Gure herriko 4 intsumisoren aurkako epaiketak ere gero eta hurrago daude; Felix

Iñurrategi martxoaren 8an epaituko dute, Andoni Urzelai martxoaren 9an, Julen Larrinaga martxoaren 23an eta Ion Ander Loidi 26an.

Baina arazoa ez da 4 intsumiso horiena bakarrik, Gipuzkoa osoko 64 intsumiso pasatuko dira epaitegietatik apirilak 27ra bitartean.

Intsumiso hauen aurka 2 urte baino gehiagoko zigorra eskatzen

dute fiskalek, kasu gehienetan. Ondoren, gartzelaratu egingo dituzte, baina berehala hiru garren gradua eskaintzen diete, hau da, kartzelan gaba pasatzera behartuta daude baina eguna libre dute. Hala ere, intsumisoek horri uko egitea erabaki dute, gabez ez bueltatuz. Horrela euren desadostasuna azaldu gura dute. Eurek soluzio politikoa eskatzen dute. Ez dute onartzen ez soldadutza-

rik ezta ordezeko zerbitzurik ere. Ondorioz barrero atxilotzen dituzte eta orain urteteko baimenik ez duen preso asko dago.

Hori dela eta otsailaren 25ean, intsumisioen aldeko hitzaldi bat egongo da udaletxeko ganbaran, arratsaldeko 7etan. Ekintza horrekin kartzelaraturako intsumisoeekin eta soldadutzari uko egiten diotenekin elkartasuna adierazi gura dute.

Kike Amunarriz beti u-
morea eta telebista ingu-
ruan kokatu badugu ere,
esan beharra dago hauek
bere afizioak direla eta ez
ofizioa. Kike Amunarriz-
zen ofizioa ikerketa esta-
distikoak egiten dituen
Siadecoko partaide izatea
da. Hizkuntza alorrean
kokatzen da beraz Kike-
ren ofizioa.

Udaleko euskera batzor-
deak eskatuta Atxabaltan
euskararen lehentasunak
adierazi ditu Siadeco



Siadecok herrian euskarak dituen lehentasunak zehaztu ditu

enpresak. Azterketa so-
ziolinguistikoauren aurkez-
pena martxoaren 1ean,
arratsaldeko 7etan, uda-
letxeko pleno aretoan
izango bada ere, gu datu
batzuk jakin guran Kike
Amunarrizekin egon gara.
• **Zein izan da egin du-
zuen lana?**

Azterketa soziolinguis-
tiko batek hiru fase izaten
ditu. Lehena ezagupenari
buruzkoa, bigarrena eus-
kararen presentzia sekto-
re sozial desberdinetan eta
hirugarrena euskararen
normalizaziorako lehen-
tasunen metodologia pres-
tatzea. Guri Atxabaltako
udalak azken fasea egite-
ko eskatu digu. Beraz
hauxe egin digu; batu le-
henik ere jasota zeuden

datuak, gero bisiten eta
elkarrizketen bidez bes-
te zenbait informazio
lortu eta guzti honetan
oinarrituta azterketa
egin dugu.

• **Ze berezitasun dauka
Atxabaltak datuen
%etan oinarriturik?**

Batetik esango genuke
euskerarekiko leialtasun
haundiko herria dela,
jendeak euskara asko
erabiltzen du euskaldu-
nen proportzioa kontu-
tan izanda. Kale neur-
ketetan euskararen era-
bilpen haundia atara da,
bertako jendeak eus-
karari eutsi dio inguruko
herrietan ez bezala.

Bestalde, azterketan ze-
har konfirmatu da bada-
goela erdaldungoaren

**Martxoaren
1ean
aurkeztuko
da
azterketa
soziolinguistikoa
udaletxeko
pleno
aretoan.
Aurkezpena
arratsaldeko
7etan
izango da.**

sektore zabal bat euskera-
rekiko oso kontaktu txikia
duena, beraz hemen lan
esparru inportantea dauka-
gu.

Beste datu bat, 18 urte az-
piko atxabaltar guztiek
euskara ulertzen dute eta
ia denek euskaraz egiteko
gaitasun minimoa behin-
tzat badute; kontuak kon-
tu, edade horietatik behera
begira antolatzen den edo-
zein gauza euskera hutsez
egin daiteke eta hori salto
kualitatibo izugarria da.

Esanak esan, esan gene-
zake Atxabalta Euskal
Herrian euskararen aldeko
herri dinamika fuerte
samara ezagutu duen he-
rrietako bat dela.

• **Ze arlo lantzen ditu az-
terketak?**

Urlatik

1994ko otsailak 23

• Gatzagako berriak •

6. zenb.



A ze giroa

Giro herrikoa karnabaletako jaixetan



Leintz-Gatzagan, ohi den bezala, larunbata izan zen karnabaletako egun fuertia. Arratsaldeko 6tan bota ziren lehenengo etxafleruak, ondoren umeentzako jolasak egon ziren, merixendia hartuz bukatu zirelarik.

8retatik aurrera, nagusientzako poteua eta

argibat berotu ondoren, giro alaian, afarira. Sisfrazak denetarik zeuden, argazkian ikusi dezakegun bezela. Aipatzekoa Pagedarrekoek ataratako pegatinia, karnabaletan ere Euskaraz.

Bukatu, norberak jakingo du noiz bukatu zuen, baina dantzaldia

11,30etan hasi zen Anaiak taldeak alaituta. Hurrengo urtean posible bada, hobeto, eta bitartean, ez dugu ez galduko okasiorik errepikatzen.

GORA BIHOTZAK!

▼ Urlatik ▼

Argitaratzailea: Pagedar Elkarte Kultur etxea, Gatzaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 600 ale. Urlatik paper Birziklatuan egiten da.

Karnabalak gaztetxoen ikuspegitik

Ander Garzia:

Larunbat arratsaldean karnabal jaialdian neska-mutil asko bildu ginen mozorrotuta herriko frontoian.

Nik oso ondo pasa nuen. Gehien gustatu zitzaidan jokoak egur batzea izan zen. Merixenda ugaria izan zen. Eskoriatzako mutikoak etorrita ere, sobratu ein zela uste dut.

Aritz Abasolo

Ni "Samurai" jantzi nintzen eta gero jokuak egin genuen, adibidez makil jokoak egin genuen, naranja batekarri behar genuen. Gero merixendatu egin genuen danok, janari asko ekarri zuten merixendetarako eta asko sobratu zen. Gero gabean Gardoki etorri zen, jendea faltetik irten zenean dantzak hasi ziren.

Victoria Blanco eta Aiora

Elkorobarrutia

5:30etan etxera jastera joan ginen. Gero frontoian denak globuak pustutzen hasi ginen, gero musika jarri zuen juliok. Igor eta Belokik etzafleruak botatzen hasi ziren, eta zkenik hasi ginen jolasten. Naranja baten bila joan behar izan ginen eta gero denen artean jan genuen. Gero txokolatadara joan ginen, eta merendola bukatu zenean plazan musika ipini zuten dantzatzeko. Gero taberna batzuk abesten hasi ziren eta gu tabernetara joan ginen dantzatzera, gero jende animau zen eta plazan dantzatzen. Han edozein traje ikusten zen eta oso ondo pasa genuen Inauterietan.



Emakumeen bazkaria

Emakumearen eguna (Martxoak 8) ospatzeko, herriko emakume guztiak bazkari batera deituak daude. **Sorginak** taldekoek telefonoz deitzen ari dira, baina norbaitek ez badu deia jasotzen deitu dezala telefono hontara izena emateko 71 41 28.

Bazkaria alaitzeko

Maixa eta Itziar trikitilariekin kontatuko dugu eta bazkarian euskeraz egitera animatzen ditugu partaide guztiei.

Goibel guztien petik,
sasi guztien gainetik,
ordu laurden bat arata
bertze bat unata
Ez gerala, bagera
amalaumilla emem gerala



Bertsotan

Gazte sasoiari sartu bagina, fraile edo misio orain ez genduen izango ba guk daukagun beste bizio.

Elizatik aparte bizi naiz tunanteekin sozio tripa zahar honek asko behar du baldin ematen bait zaio.

Halakuek zira lehengo kontuak ... Orain listo daude halako tontuak

Cruz Azkoaga

Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!



BUNAITZ JATETXEA
BUNAITZ JATETXEA
BUNAITZ JATETXEA

**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfnoa.: 71 46 08

GATZAGAN

GATZA GAIN JATETXEA

Bertako janari tipikoetan espezializatua

Tfnoa: 71 50 77

OHARRA:

Udalak Ludotekia eta Liburutegia zabaldu ditu berriro, Jakeline Elkoro-barrutiak atenditzen dituelarik, nahi duenak joan daiteke. Bertara inguratzeko diren gazteei euskeraz egiteko eskatzen zaie.

Ludotekia: Astelehenetan, Asteazkenetan eta Ostiraletan.

Liburutegia: Asteartean eta Ostegunean.

GURE AMETSA JATETXEA

Ezkontza, euskal sukaldea, entrepesetako afariak

Tfnoa: 71 49 52

Leintz Gatzaga

ARRATE

Taberna

*Menestra, bakailu eta txuletoian bereiztuak,
Etxeko postre gozoak.*

☎ 71 43 71

LEINTZ GATZAGA

Jose Aranzabal

BIDEOKAMARAK,
TB, HI-FI, BIDEOA,
ELEKTROGAILUAK

SUKALDEKO
ALTZARIAK

ITURRJOIZ, 15
Tfnoa: 79 15 16

Bañez doktorea, 2
Tfnoa: 79 18 92

ARRASATE

Hizkuntz gaitasuna

	Euskaldunak	Ia Euskaldunak	Erdaldunak
81	51,3	9,5	39,2
86	55,8	12,5	31,6
91	59,6	11,8	28,6

Ama hizkuntza

	Euskaldunak	Biak	Gaztelera edo besterik
86	50,2	4,5	44,7
91	47,9	5,6	46,5

Etxeko hizkuntza

	Euskaldunak	Biak	Gaztelera	Besterik
91	37,5	16,5	45,3	0,7

Gauzak funtzionalago egiteko eragile nagusi bi aztertu ditugu. Udala eta Loramendi K.E hain zuzen ere.

- Udalari • Udal administrazioaren euskalduntze prosezua legokioke. • Gainerako erakunde ofizialen euskalduntze prosezuan jarraipen lana egitea (osakidetza, postak). • Irakas-kuntzan, gure proposamena Euskera Batzordetik bilgune bat sortzea litzateke komunikazioa samurtzeko ikastetxeekin, euskaltegiekin, erakunde desberdinekin, familian

eta Loramendi k.e-aren artean.

-Loramendiri• gizarte bizitzaren euskalduntze guztia legokioke.

• **Zein egoeratan dago Udala eta nondik nora joango lirateke proposamenak?**

Udalaren kasuan ikusi dugu, ezagupen maila altua dagoela, bestetik Euskara Batzorde sendoa dagoela eta orain arteko lana oso ondo bideratu duela. Hau dela eta, epe motz batean modu horretako salto kualitatiboak emateko moduan egon-

go da Udala. Batetik ezagupenaren hobekuntza prosezua epe motzean lortuko du, Udal langile guztiak gai izango dira euren lana euskaraz egiteko. Hau praktikara eramateko "trebakuntza prosezua" egin behar da; norberak dakien euskara hori lanean erabiltzeko trebatzea alegia. Urrats hau gainditzen denean gai izango ginateke Udala euskaraz martxan jartzeko.

Bigarren salto kualitatiboa Udalean lortu-

Atxabalta mugikortasun handiko herria da, ikasle asko ateratzen dira eta sortu ere.

takoa Atxabalta osora hedatzea litzateke, harreman sare euskaldunak Udaletik kanpora sortuz. Honela bada, geratuko litzazigukeen beste hutsune bat zerbitzu administratiboena litzateke eta hemen puntu beltz aitatu behar: Osakidetza. Horrelako zerbitzuetan eragiteko arazoak sortzen dira Udalak harreman zuzenik ez duelako.

• Zelan dago Atxabaltan irakaskuntza?

O.H.O bitarteko egoera oso ona da. A eredu desagertu da, D ereduan ez dago arazorik eta B ereduaren ordean inmersio programa sartuta dago.

A r a z o haundiagoak, barriz, bi alorretan aurkituko genituzke: ikastetxetik kanpo ume horiek urteten dutenean ze hizkuntza erabiltzen duten. Hemen agertzen zaigu B ereduko eta familia erdaldunetako haurrak elkarrekin ibiltzen direla eta gaztelera erabiltzen dutela normalean. Lanbide heziketako institutuaren egoeratik oso egoera koropilatsua bizi da, irakasle aldetik eta baita ikasleen aldetik ere. Beraz zaindu beharreko puntua da batez ere ikasleek duten hizkuntzarekiko motibaziori begira.

• Zein papel bete behar luke aurrerantzean udal-euskaltegiak?

Bi puntu garrantzitsu azaldu dira; ikaslego gero eta helduagoa da, honek esan gura du ikasle gazteen beharrak auztean hutsune bat somatzen dela. Bestetik Atxabaltatik kanpora euskara ikasten dutenen kopurua ere haundituz doa. Hori denori aintzat hartuta aurrera begira jorratu beharreko lan ardatzak hauek izango lirateke: gazte talde batzuetan, gazte munduan esaterako, arreta berezia jartzea, harreman zuzena lanbide institutuarekin. Euskaltegiak eskaintza hirukoitza izan beharko luke: batetik eskaintza normala orain arte modukoa, baita behar bereziak dituzten taldeekin (gazteak) eta bestetik sektoreetatik etor daitezkeen talde bereziei erantzun ahal izatea.

• Ze suposatzen du

Loramendi elkarteak euskararen normalizaziorako?

Udalerriko sektore desberdinen euskalduntze prozesuaren ardura hartu beharko luke.

Guk helburu mailakatu eta hitzarmen bidea planteatu dugula euskalduntze prozesu hau bideratzeko. Bide honetan oinarrituz, egoera altuenean dauden sektoreei planteatu beharko zaie euskarako harreman sare batean sartzea; udala zein ikastetxe eta abarrekin. Hain maila altuan ez daudenekin elkarte elkarte aztertu beharko litzateke, zeintzuk diren eman daitezkeen aurrera pauso konkretu eta errealak ikusiz. Eta egoera bajaran daudenean barriz, motibazioaren alde lanean jar daitezkeen ahaleginak egin.

Oinarrizko ideia beraz leku bakoitzean normalizaziora heltzea litzateke. Horretarako elkarte bakoitzak bere euskara arduraduna izatea komenigarria izango da. Loramendiren lana atzetik joatearena litzateke, prozesu osoaren jarraipena egin beharko luke. Herriko sektore desberdinen euskalduntze prozesuaren ardura hartu beharko luke.

• Ze papel bete dezake Aretxagazetak?

Aretxagazeta prozesu guzti honen bozeramaile publiko bihurtu beharko luke. Hori lortzeko harreman konstante eta sakonean egon beharko luke bai Euskara Batzordearekin eta baita Loramendi elkartearekin ere. Aretxagazetak lan berezia egin dezakeelako euskaldungoaren trinkotzeari begira.



Musika klasikoa modan dagoela eta, txoko hau aprobetxatu dugu Arrasate Musikaleko ikaslea den Ainhoa Iglesiasekin egoteko. Ainhoak 14 urte besterik ez ditu, baina bibolina-rekin esperientzia handia du. Oraindik jende aurrean oso gauza gutxi egin ditu, kontzertuetan hasi berria dela esan dezakegu. Baina erreportaiari irakurriko duzue ez zaito falta.



Ainhoa Iglesias, bibolinari berba eragiten

• **Noiz hasi zinen bibolina joten?**

• Orain dela 4 urte, solfeoa ikasten hasi nintzen. Gero instrumentu bat aukeratu behar izan nuen, eta nik bibolina aukeratu nuen.

Hasieran Atxabaltan hasi nintzen, baina gero, Mondragoera joan behar izan nuen.

• **Zergatik aukeratu zenuen bibolina?**

• Pianoa eta bibolinaren artean nengoan. Bibolina gatxagoa iruditzen zitzaidan, baina aitak etxean musika klasikoa ipintzen zuenean, bibolinaren soinua ge-

hiago gustetan zitzaidan.

Bibolina ikasita gero, gitarra espainola joteko asmoa daukat.

• **Gatxa da?**

• Nahiko, jotzen dakieneak, gatxena dela dio, esku biak koordinatzea asko kostatzen delako.

• **Eta garestia?**

• Gurasoek diotenez bai, beti kexatzen dabilta gauzak ordaintzeko orduan. Hasieran bibolin batek 10.000 pztako kostua zeukan, baina gero profesionaltzen joaten zarenean 150.000 pztako balio de-

zake gutxi-gorabehera.

Horretaz aparte, solfeoko klaseak ordaindu behar dira.

• **Euki duzu inoiz agujetarik?**

• Bai, eta askotan gainera. Azterketak daudenean oso normala da. Azterketak eskolan moduan trimestralak izaten dira.

Nik orain arte Arrasaten egin ditut, baina gero 5. kurtsora heltzen naizenean, Donostiara joan beharko dut.

• **Zein da bibolinaz joteko piezarik gatxena eta samurrena?**

• Gatxenak Bach-

enak dira. Samurrenak, edo gehien gustatzen zaidanak behintzat, "Los cuadros vascos" dira.

• **Zelakoak dira klaseak?**

• Pianoaz letxe, zortzi kurtsoko dira. Orain arte klasean ni bakarrik egon naiz irakaslearekin, baina orain hiru pertsonako taldeak egiten dabilta.

• **Zenbat denbora eroaten dizu?**

• Egunero ordu bi sartu beharko nituzke, baina ordu bat besterik ez dut sartzen, ez daukat astirik. Horretaz gain, astean bi klase daukat.

• **Zer esaten dizute etxean?**

• Ados daude. Batzuetan ataraten dudana zaratagatik protestatzen dute. Imajina dezakezu zela dauden nire bizilagunak!


• **Jendearen aurrean askotan jo duzu?**

• Ni aurten hasi naiz Arrasate Musikalena. Horregatik behin besterik ez dut jo jendearen aurrean eta bera Arrasaten izan da.

• **Bakarrik jotea gustatuko litzaizuke?**

• Ez, ez... gurago dut orkestra batean jo. Soinuak konpletoagoa da eta horrela lasaiago egon naiteke.

**J. Feunsanta
R, Velasco**



Asier Guenetxea Portugalen garaipen bi lortu ditu

Asier Guenetxea atxalbarrak ez du batere txarto hasi denboraldia. Joan zen hamabostaldian, Ma-

llorcako birako hirugarren etapan lehen postua lortu zuela adierazi genuen.

Portugaleko A Capi-

Igeriketa ikastaroek zabalik jarraitzen dute. Taldeak osatzen direnean hasiko da ikastaroa. Ikastaro hauek 20 egun irauengo dute eta saio bakoitza 45 minutukoa izango da. Prezioa 4.500 pezetakoa izango da Kirol-Etxeko bazkide direnendako eta 5.500 pzta bazkide ez direnendako.

Ikastaroak hasi barriei eta estiloa hobetu gura

dutenei daude zuzenduta.

Informazio gehiagorako Kirol-Etxera jo beharko duzue edo 79 64 61 telefonora deitu.

AguaGym ikastaroa ere hasita dago, baina oraindik apuntatu gura duenak, apuntatu daiteke. Kirol hori egiteko astean hiru egun izango dira; martizena, eguena eta zapatua. Beraz badakizue, aukera onak daude eta.

tal sari berezia Lisboa inguruan egin da eta Asierrek garaipen bi lortu ditu.

Asierrek bere azken garaipena, zapatuan lortu zuen. 129 kilometro tropelean eginda gero sprintean lortu zuen, aurtengo hirugarren garaipena.

Lasterketa Caldas da Rainhan hasi eta Seixalen bukatu zen. Asierrek kilometro horiek denak egiteko 3 ordu 12' eta 54" denbora behar izan zuen. A Capital lasterketako bere lehen garaipena eguakotxean izan zen.

Gogoratu beharra dago, Asierrek joan zen urtean ere, lasterketa honetan garaipen bat lortu zuela eta baita erregularitate sailkapena ere.

Aurtengoa Asierren hirugarrena da profesionaletan Artiach taldean.

Otsailaren 26an Dorletako Ama Txirindulari Eskolak bere aurkezpena egingo du.

Aurten Dorletako Ama Eskolak 1. eta 2. urteko jubenil, kadete eta Infantil neska-mutilen aurkezpena egingo du.

Esan beharra dago, 1994ko denboraldirako taldeen kide eta babeslea Gure Ametsa jatetxea izango dela.

Futbolari dago kionez, U.D.Ako lehenengo taldeak garaipen handia lortu zuen U.P.Vren kontra eta horrela negatibo bi utzi zituen. Partidu polita izan zen. Atxalbaltako taldeak bere garaipena kontraerasoan lortu zuen eta hiru golak Gorka Otxoak lortu zituen.

Lehenengo errejional mailakoe 8 eta leko garaipena lortu zuten Intxaurrenoren kontra. Taldea orain 7. postuan dago 25 puntu eta positibo batekin. Hurrengo partidua Vasko niaren kontra izango dute.

Udako emakumeen taldeak, berriz, garaipen polita lortu zuen azkenengo minutuan Gure Txokoa taldearen kontra.

1920. urteko haratuzteak



Berrogei urte bakesutan, beste harek, "El Eterno"-k garbi zeukan. Jai hauek ez ziren eta ez dira gizarte sano batek behar duen festa moeta. (Dagokion abotsa jarri eta ozenki irakurri). "Existen fiestas no tan recomendables o especialmente irritantes como los carnavales, fiesta de fondo pagano y absurda que se convierte en

tumulto y en prepotencia de las mascaritas más brutos, pertrechados en la impunidad de su disfraz". Ez zitzaion arrazoirik falta. Dena den eta berrogei urte pasa ondoren, hemen gaude, jaien zentzua galduta, ezsustraituta; baina hori bai, ez diezagula inork "disfrazatzeko" eskubide eta ilusioa kendu! Bai disfrazatu. Lehen jendea ez zen disfrazatzen, kukumarru jasten baino,

mozorroto egiten zen.

Goizean, eguerdi aldera, gure gala onenkin, hor goaz lakean gora, kalean behera, nork ikusiko gaituen zai, desioz irrikatzen. Geroxeago, arratsalderako, denborak bere tokira dakar bakoitza, eta iraganaren pozak eta argiak, tristura, iluntasuna eta biharamuneko kezka bihurtzen dira. Baina une batez gure burua engainatu egin

dugu. A ze alukeria, norberaren buruari tranpa egitea! Sikera beste harek garbi aitortzen zuen hurrengo egunean, gupasa egin ondoren: "Jotio, gogait eginda nago"! Eskerrak.

*A. Antxia
I. Urreta*

Sorpresak hi!



J.J. Aretxaga

Kakatua berdea, zer ete da hori? ATBn entzun nuen jende famatuak parte hartzen zuela teatro horretan, semea ere burua berotzen hasi zitzaidan, eta azkenean joatea erabaki genuen. Amaia antzokia dotore jarri dute, eszenarioa oso espektakularra zen eta aktoreak asko, hogeita hamarren bat edo. Euren artean bat ezaguna egin zitzaidan, teatroa bukatu zenean lagun bati galdetu eta baietz, aktore hura atxalbaltarra zela esan zidan, **Dabid Errasti** zela.

Eta joan zen astean ere beste sorpresatxo bat izan nuen. Nik normalean Euskaldunon Egunkaria irakurtzen dut, baina lehengo egunean Bizkaia aldera joan nintzen eta han taberna batean periodiko erdaldun bat leiduten nabilela atxabaltar baten argazkia ikusi nuen. **Izaskun Altuberen** erretratua zen, eta periodikoak zekarrenez, Radio Correon hasi da lanean.

Honako notizia hau, barrez, Euskaldunon Egunkariatik jaso dut. **Kepa Akixo** atxalbaltarrak erakusketa bat antolatu du bere eskulturekin Miarritzeko Jaialdien jaurregian. Erakusketa martxoaren 14ra arte egongo da zabalik.

Erakusketa kuriosoa Murruxiko bere lokalean egiten dabilena, aratusteetan egin zen argazki rallyan ataratako erretratuekin. Horrelakoetan gainera irabazleak eta egoten dira, normala ei da: lehenengo saria **Isaak Kortabarrriak** irabazi zuen eta bigarren **Aitor Atxaga** geratu zen.

Erakusketa ez, baina erakustaldi edo exhibizio ederra egin zuen **Gorka Otxoak** domekan. UDAk bi eta hiruko emaitzaz irabazi zuen kanpoan eta hiru golak Gorkak sartu zituen, Romariok letxe.

Juan Mari Errastiri ere zorionak eman beharko dizkiogu, AEK-k aratusteetan antolatutako errifan lehenengo saria irabazi zuelako, mariskada.

Eta Aretxagazetakoek uzten didaten lekutxo hau aprobetxatuaz, zorionak eman gura dizkiet **Eugenio Uralde Arzabideri** eta **Bernarda Ugarte Egureni**, urrezko ezteiak ospatu dituztelako.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



SARIA: k-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

**Ze izen du argazkian ageri den
baserriak?**

- ▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- ▼ Aurreko zenbakiko erantzuna: Pastoriena baserria.
- ▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea **EÑAUT KORTABARRIA. Zorionak.**

Erantzuna:.....

Izen-abizenak:

Helbidea:.....

Tfnoa:.....

26 ZAPATUA

• Gaueko 10etan, Zaraia zineman "El fugitivo" filmea.

• Futbol partidua: U.D.A-Lazkao K.E.
• Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan "EL FUGITIVO" filmea, Zaraia zineman.

27 ZAPATUA

• Murruxiko Mendizale Elkartearen urteera: Gaztetxoan akanpada.

1 MARTIZENA

• Basotxo Elkartekoek patroiaren eguna ospatuko dute.

5 ZAPATUA

• Gaueko 10etan Zaraia zineman "LA FAMILIA ADAMS II" filmea.

6 DOMEKA

• Zikloturisten urteera: Aretxabaleta-Arrasate-Aramaioana-Arrasate-Aretxabaleta-Arlaban Dorleata-Aretxabaleta. (46 Km)

• Zaraia Mendi Taldearen urteera: Bayorra.

• Murruxiko Mendizale Elkartearen urteera: Lekanda-Itxina.

• Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan "LA FAMILIA ADAMS II" filmea, Zaraia zineman.

ARETXAZOKA

Lana

✓ Edozein mota-tako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 79 77 59 telefono zenbakira eta Fernandoz galdetu.

✓ Zure aulkia hondatuta baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi barria ipiniko diogu eta. Deiggin 79 15 96 telefonora.

Etxebizitza

✓ Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 79 29 19 telefonora.

✓ Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

✓ Pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak 71 47 10 zenbakira deitu.

Etxebizitza

✓ Pisu bat salgai dago Lausita kalean. 90m2 ditu eta garajea ere bai. Interesatuak 798671 telefonora deitu 8etatik aurrera.

✓ Pisu baten bila nabil Aretxabaletan. Bi edo hiru logela jantzita eukitea gustatuko litzaidake. Interesatuak deitu 79 84 67 telefonora.

Denetik

✓ Renaulta Twingo berria eta prezio onean saltzen dut. Ez dago matrikulatua. 79 65 00 telefonora deitu.

✓ Argazki kamaren funda galdu zitzaidan karnabaletan. Topatu duenak Aretxagazetara ekarri.

Betaurrekoak galdu zitzaizkidan karnabaletan. Topatu dituenak Aretxagazetara ekarri.

SEAT
 
**GARAJE
 OSKAR**
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

**BASABE
 JATETXEA**
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

**HAIZEA
 AKEITEGIA**

 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57

**T
X
i
L
A
R
R
A**

**ELIKADURA
 BEREZIA**
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA

**JAUREGI
 OKINDEGIA
 (Panaderia)**
 Otalora, 10
 ☎ 79 57 47

**DORLETA
 TABERNA**
 Loramendi, 10
 ☎ 79 94 15

**PAUSOKA
 HAURTZAINDEGIA**

PAUSOKA HAURTZAINDEGIA S. COOPEK
 1994-95 ikasturterako
AURRE MATRIKULA EPEA ZABALTZEN DU
MARTXOAK 1etik 11arte
ORDUA: Arratsaldeko 6etatik 7etara
NON: Pausoka hartzaindegian
 Otalora 27
 Aretxabaleta

ARETXAGAZETAko BAZKIDE izan
 gura baduzu deitu:
 ☎ 79 01 05
 Arratsaldeko 3retatik 7etara


MAPFRE
 Aseguroak
Errekebarren, 3
 Tfnoa: 77 11 76

GUREA
 TABERNA-JATETXEA
 Durana Kalea
 Tfnoa: 79 20 64

Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa heldu zaio.

Hipoteka Berria %9,75ean*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA